

KI MU AK 2019

-
Euskadiko Film Laburrak
Selección de Cortometrajes Vascos
Selection of Basque Short Films
-

KIMUAK 2019 DEIALDIKO OINARRIAK

Idatzi honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez antolatutako eta Euskadiko Filmategia Fundazioak kudeatutako KIMUAK programaren 2019ko edizioan parte hartzeko deialdia zabaltzen da.

HELBURUA

Programa honen helburua, euskal film laburrak sustatu eta banatzea da. Prozesu honetan hautatuak suertatzen diren film laburrak KIMUAK deiturapean jasoko dira.

Programak berak hartuko du bere gain aukeraketa izen-emate tasarik gabeko zinemaldietan inskribatzea (baita KIMUAKek tasa ordainketa salbuetsita duen zenbait deialditan) eta estatuko zein nazioarteko azokatan promozionatzea. Halaber, KIMUAK arduratuko da obra programatzen duten zinemaldi eta ekitaldietara kopiak bidaltzeaz.

KIMUAKek ez du irabazi asmorik. Film laburren sustapenak eta banaketak sortutako diru-sarrera guztiak egileentzat izango dira.

BETEKIZUNAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, honako baldintzak bete beharko dira:

- Film laburraren ekoizpen data 2018ko ekainaren 1etik aurrerakoa izan behar da.
- Film laburraren egileek **baldintza hauetako bat** bete beharko dute:
 - A. Zuzendaria Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta egotea gutxienik deialdia argitara eman baino urtebete lehenagotik. EAEn jaioa izanik, gutxienez 5 urtez jarraian bertan bizitakoa izan behar du, edo jarraian izan ezean, bertan bizitako garaien baturak gutxienez

10 urtekoa izan behar du.

- B. Ekoizleak edo ekoizpen-etxeak EAEn izatea egotza. Bi enpresen edo gehiagoren arteko koprodukzioa bada, EAEko ekoizleak gehiengoa duen bazkidea dela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
- Gaia eta generoa askeak dira, baina ez dira onartuko bideoklipak ezta izaera publizitarioa duten lanak. Eduki arrazista edota sexista duten ekoizpenak, zein hirugarren baten eskubideak urratzen dituztenak edo animaliananako tratu txarrak edo kalteak eragin dituztenak ere ez dira onartuko. Materiala inskribatzen duen pertsona izango da edukiaren legezko arduraduna.
- Lanak originalak izan behar dira. Eskubideen titularren aldetiko erreklamazio posibleen aurrean, izen-ematea egin duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira erantzule bakarrak.
- Film laburrak edozein hizkuntzatan egindakoak edo elkarrizketarik gabekoak izan daitezke.
- Iraupenak 30 minututik beherakoa izan behar du.
- Lanak edozein formatutan filmatuak egon daitezke.
- Egile bakoitzak nahi beste film labor aurkeztu ditzake.
- Film laburrek komertzialki estreinatu gabea izan behar dute. Telebistaz, internetez edota beste edozein plataforma publikoren bitartez hedatuak izan diren lanen onarpena ebaluatuko da.
- Postprodukzioa amaitu gabe duten film laburrak aurkeztea posible da, muntaketa behin betikoa den bitartean. Amaitu gabeko proiektu bat aukeratua suertatuz gero, egilea uztailaren 1erako bukatuta entregatzera konprometitzen da. Epe hau ez betetzeak kanporatzea ekar dezake.
- Film laburrak KIMUAKen eskuduntzen eremuko **25 zinemalditara gehienez aurkeztu izatea** onartuko da. KIMUAKen eskuduntzetatik, eta beraz mugatze honetatik kanpo geratzen dira izena emateko tasak ezartzen dituzten jaialdiak.

AURKEZTU BEHARREKO MATERIALA ETA AGIRIAK

Deialdian parte hartu ahal izateko, nahitaezkoa da honako materiala eta agiriak aurkeztea:

- KIMUAK 2019 aukeraketan sartzeko eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Film laburraren artxibo digital bat, 300 MBeko gehienezko pisuarekin (epaimahaiak online plataforma batean ikusiko ditu), eta H264 estandarrean MOV edo MP4 formatuan.
Epaimahaiaren EAekoak ez diren kideak egongo direnez, ezinbestekoa da jatorrizko bertsioa gaztelania ez den kasuetan gaztelaniazko azpigituluak jartzea.
- Film laburraren fotograma bat.
- Zerga-betebeharrak egunean daudela ziurtatzen duen Foru Ogasuneko egiaztagiria.
- Bizilekua EAEn izatearen edo eduki izanaren ziurtagiria (errolda agiria).
- Film laburra koprodukzio bat bada, EAeko ekoiztetxea gehiengoa duen bazkidea dela ziurtatzen duen adierazpen sinatua.
- Film laburra zinemaldiren batera aurkeztu bada, izen-emateen, aukeraketan eta sarien zerrenda osoa.

AURKEZTEKO MODUAK ETA EPEA

Film laburrak aurkezteko epea **2019ko maiatzaren 24ko 23:59etan** amaituko da. Posta bidezko bidalketetan, posta-zigiluaren data onartuko da. [Epez kanpo jasotako eskaerak ez dira onartuko.](#)

Maiatzaren 31 arte aurkeztutako materialaren zuzenketa epea irekiko da. Aurkeztutako proposamenak eskatutako betekizunak biltzen ez baditu edo nahitaezko dokumentazioa falta bada, dagokionari eskatuko zaio beharrezko zuzenketak egitea.

Eskaera-orria, eskatutako agiriak eta film laburra honako bideen bitartez bidali ahal izango dira:

- Online partekatze zerbitzu baten bidez (Wetransfer, Mediafire, etab.) kimuak@filmotecavasca.com helbidera.
- Emailez, kimuak@filmotecavasca.com helbidera, agiriak erantsita eta pasahitz bidez babestutako Vimeo esteka bat zehaztuz, betiere honek deskargatzeko aukera aktibatuta duela.
- USB memoria batean KIMUAKen bulegora:

Euskadiko Filmategia Fundazioa
- KIMUAK 2019 -

Andre Zigarrogileak plaza, 1-2. solairua
20012 Donostia (Gipuzkoa)

Kopien bidalketaren gaineko zalantzarik izanez gero edo zailtasunak edukiz gero, kontaktatu KIMUAKekin kimuak@filmotecavasca.com helbidean edo 943 11 55 11 telefono zenbakian.

HAUTAKETA

Aurkeztutako lanak aztertu eta epaitzeko, zinema eta ikus-entzunezkoen munduko bost profesional eta adituez osatutako hautespen batzorde independente bat eratuko da. Kide bakoitza gehienez hiru urtez jarraian deitua izango da.

Hautaketarako funtsezko irizpidea lanaren kalitate orokorra izango da.

Deliberazio data deialdia ixtean argitaratuko da eta **hautaketaren emaitzak epaiaren hurrengo egunean emango dira jakitera.**

Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.

HAUTATUTAKO FILM LABURREN KONPROMISOAK

Hautatutako film laburren egileek hitzematzen dute honakoak aurkeztuko dituztela, antolakuntzak adierazitako epeen barruan:

- Film laburraren elkarrizketa-zerrenda jatorrizko bertsioan, denbora kodeekin.
- Fitxa tekniko eta artistiko osoa.
- Film laburra zein jaialditara bidali den, zeintzuetan aukeratu duten eta zein sari jaso dituen adierazten duen zerrenda eguneratua.
- Film laburraren sei irudi (300 dpi-ko bereizmenarekin).
- Film laburraren kartelaren diseinua (jpg, tif).
- Film laburraren trailerra (mov, mp4).
- Zuzendariaren argazkia (lan kolektiboen kasuan, taldeko argazkia).
- Zuzendariaren biofilmografia.
- Zuzendariaren NANaren edo pasaportearen fotokopia (jpg, pdf).
- ICAAren kalifikazioa eta nazionalitate-agiria.
- Film laburraren artxibo bana H.264 (1920x1080) konpresio formatuan, jatorrizko bertsioan eta euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko, frantsesezko, italierazko, alemanezko eta portugesezko azpтитuluekin.
- Film laburraren lehen DCPa edo honen kopia bat, jatorrizko bertsioan eta euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko, frantsesezko, italierazko, alemanezko eta portugesezko azpтитuluekin.
- Film laburraren kopia Apple ProRes 422 (HQ) konpresio formatuan eta AC3 5.1 edo Stereo soinu sinkronizatuarekin, azpтитulurik gabe eta ingelesezko azpтитuluekin (gaztelaniazkoekin ere bai, hala badagokio).
- Film laburraren Blu-Ray kopia bat, jatorrizko bertsioan eta euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko, frantsesezko, italierazko, alemanezko eta portugesezko azpтитuluekin.

Prozesua eta azken emaitza bateratze aldera, KIMUAK arduratuko da hautatutako filmen itzulpenen eta azpтитuluen kudeaketaz. Itzulpenen kostuak KIMUAKek hartuko ditu bere gain.

Halaber, KIMUAKek banatze eta sustapen prozesu osoan beharrezkoak izan daitezkeen kopia guztien kostua hartuko du bere gain, formatua edozein dela.

AZKEN XEDAPENAK

Film labur bat KIMUAK 2019 egitasmoan hautatua izateak aipatutako katalogoan ESKLUSIBOTASUNEZ jaso izango dela esan nahi du, beraz, ezingo du film laburrak sustatzeko beste katalogo publiko batean parte hartu. Muga horrek ez du eraginik izango enpresa pribatuen kasuan, baldin eta enpresa horiek KIMUAKi dagozkion esparruetan jarduten ez badute (film laburrak zinema-jaialdietan eta gainerako esparruetan zabaltzea).

Hautatutako film laburren arduradunek materialak entregatzeko KIMUAKek ezarritako epeak bete beharko dituzte. Beren atzerapenagatik katalogoa egiteko arazoak sortzen dituztenei zigor ekonomikoa ezartzeko eskubidea izango du KIMUAKek. Arau-hauste larria gertatuz gero, KIMUAKek filma baztertzeko erabakia hartu dezake.

KIMUAKen logotipoa film labur bakoitzaren hasieran sartu beharko da.

Aukeratuta suertatzen diren film laburrek proiektzio eskubideak eman beharko dizkiote KIMUAKi, eskusibotasunik gabe, helburu promozionala, didaktikoa zein kulturala izan dezaketen irabazi asmorik gabeko emanaldietarako.

Deialdi honetatik ateratzen den katalogoa 2019ko irailean aurkeztuko da Donostia Zinemaldian, emanaldi pribatu batean.

KIMUAKek beretzat hartzen du informazioa isilean gorde duten film labur oro baztertzeko eskubidea.

OINARRIAK ONARTZEA

Film laburra deialdi honetara aurkezteak oinarri hauek automatikoki eta osoki onartzea dakar.

BASES DE LA CONVOCATORIA KIMUAK 2019

Mediante la presente, se abre la convocatoria para participar en la edición 2019 del programa KIMUAK del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a través de Etxepare Euskal Institutua-Instituto Vasco, gestionado por Euskadiko Filmatagia-Filmoteca Vasca.

OBJETO

KIMUAK tiene como objeto promocionar y distribuir cortometrajes vascos. Las obras seleccionadas en este proceso se recogerán bajo la denominación de KIMUAK, el cual se hará cargo de su distribución en festivales sin tasas de inscripción (también en convocatorias en las que KIMUAK cuenta con exención de tasas), así como de su promoción en mercados internacionales y nacionales. Igualmente, KIMUAK se hará cargo del envío de copias a festivales y eventos en las que las obras hayan sido programadas.

KIMUAK no tiene ánimo de lucro. Todos los ingresos generados por la promoción y distribución de los cortometrajes en festivales irán destinados íntegramente a los autores.

REQUISITOS

Para concurrir a la presente convocatoria, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

- La fecha de producción debe ser posterior al 1 de junio de 2018.
- Los autores del cortometraje deberán cumplir **una de estas dos condiciones:**

A. El director debe estar empadronado en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) desde al menos un año antes de la fecha de publicación de la presente convocatoria, o bien haber nacido en la CAV y haber residido en ella de manera

continuada durante al menos 5 años, o de forma discontinua durante al menos 10 años.

B. El productor o la empresa productora debe estar radicada en la CAV. En caso de coproducciones entre varias empresas, el productor de la CAV debe acreditar ser el socio mayoritario.

- El género y el tema son libres, pero no serán admitidos videoclips ni trabajos de carácter publicitario. Toda producción que tenga contenido racista, sexista o que atente contra cualquier derecho de un tercero o en la que animales hayan resultado dañados o maltratados, tampoco será admitida. La persona que inscriba el material será la responsable legal del contenido del mismo.
- Las obras deben ser originales, siendo las personas físicas o jurídicas que las inscriban las únicas responsables ante cualquier posible reclamación de los titulares de derechos sobre las mismas.
- El cortometraje puede estar realizado en cualquier idioma, o bien carecer de diálogos.
- La duración debe ser inferior a 30 minutos.
- La obra puede haber sido rodada en cualquier formato.
- Cada autor puede presentar cuantos cortometrajes desee.
- La obra no debe haber sido estrenada comercialmente. Se evaluará la admisión de aquellas obras que hayan sido emitidas o difundidas por televisión, internet y/o cualquier otra plataforma pública.
- Pueden presentarse cortometrajes cuya post-producción no esté finalizada, siempre y cuando el montaje sea definitivo. En caso de que un proyecto sin terminar resulte seleccionado, sus autores se comprometen a entregarlo finalizado antes del 1 de julio de 2019, bajo pena de exclusión.
- Sólo se admitirán trabajos que hayan postulado a un máximo de 25 festivales del ámbito de competencia

de KIMUAK. Quedan fuera de este ámbito de competencia y por tanto de esta limitación todos los festivales que apliquen tasas de inscripción.

DOCUMENTACIÓN Y MATERIAL A PRESENTAR

Para poder concurrir a la presente convocatoria, es necesario presentar el siguiente material y documentación:

- Solicitud de inscripción para la selección KIMUAK 2019, debidamente cumplimentada.
- Un archivo digital del cortometraje, con un peso máximo de 300 Mb, preferiblemente en estándar H264 y formato MOV o MP4. Ante la presencia de miembros ajenos a la CAV en el jurado, los cortos realizados en cualquier lengua distinta del español deberán presentarse con subtítulos en dicho idioma.
- Un fotograma del cortometraje.
- Certificado de la Hacienda Foral de estar al corriente de pagos.
- Certificado de residencia en la CAV en la actualidad o en el pasado (empadronamiento).
- En caso de ser una coproducción entre varias empresas, declaración firmada de que la productora vasca es la socia mayoritaria.
- En caso de haber presentado el cortometraje a algún festival, un listado completo de inscripciones, selecciones y premios.

FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

El plazo para inscribir obras en esta convocatoria finalizará **el 24 de mayo de 2019 a las 23:59**. En envíos por correo se tendrá en cuenta la fecha de franqueo postal. No serán admitidas a trámite las solicitudes que se presenten fuera del plazo establecido.

Hasta el 31 de mayo se abrirá un período de subsanación del material presentado. Si la solicitud presentada no reúne los requisitos exigidos o no se acompaña de la documentación preceptiva, se requerirá al interesado que subsane y/o acompañe los documentos necesarios.

La solicitud de inscripción, los certificados requeridos y los cortometrajes podrán enviarse utilizando cualquiera de las siguientes vías:

- Mediante un servicio de transferencia online (Wetransfer, Mediafire, etc.) a la dirección de correo kimuak@filmotecavasca.com.
- A la dirección de correo kimuak@filmotecavasca.com, adjuntando los documentos requeridos e indicando un enlace privado de Vimeo que tenga activada la opción de descarga.
- En una memoria USB a la oficina de KIMUAK:

Fundación Filmoteca Vasca
- KIMUAK 2019 -

Plaza de las Cigarreras, 1-2ª planta
20012 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)

En caso de cualquier duda o dificultad en lo referente al envío de las copias, pueden contactar con KIMUAK en la dirección kimuak@filmotecavasca.com o en el teléfono 943 11 55 11.

SELECCIÓN

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, se constituirá un comité de selección independiente formado por cinco profesionales y expertos del mundo del cine y del audiovisual, que podrán ser convocados durante un máximo de tres años consecutivos.

El criterio de selección primordial será la calidad global de la obra.

La fecha de la deliberación se publicará al cierre de la convocatoria y **los resultados de la selección se darán a conocer al día siguiente del fallo.**

La resolución del jurado es inapelable.

COMPROMISOS DE LOS CORTOMETRAJES SELECCIONADOS

Los autores de los cortometrajes seleccionados se comprometen a entregar, dentro de las fechas marcadas por KIMUAK, el siguiente material:

- Lista de diálogos del corto en su idioma original, con códigos de tiempo.
- Ficha técnica y artística completa.
- Listado actualizado de los festivales a los que el cortometraje ha sido presentado, indicando las selecciones y los premios obtenidos.
- Seis imágenes del cortometraje (resolución 300 ppp).
- Diseño del cartel del cortometraje (jpg, tif).
- Tráiler del cortometraje (mov, mp4).
- Una fotografía del director (en trabajos colectivos, una foto de grupo).
- Biofilmografía del director.
- Fotocopia del DNI o pasaporte del director (jpg, pdf).
- Calificación del ICAA y certificado de nacionalidad.
- Copias del cortometraje con formato de compresión H.264 (1920x1080), en versión original y con subtítulos en euskera, español, inglés, francés, italiano, alemán y portugués.
- Una copia o el primer DCP del cortometraje en versión original y con subtítulos en euskera, español, inglés, francés, italiano, alemán y portugués.
- Copias del cortometraje en formato de compresión Apple ProRes 422 (HQ) y con sonido sincronizado en AC3 5.1 o Stereo en versión original y con subtítulos en inglés (también en español, en su caso).
- Copia Blu-Ray del cortometraje en versión original y con subtítulos en euskera, español, inglés, francés, italiano, alemán y portugués.

Con objeto de unificar el proceso y el resultado final, KIMUAK gestionará las traducciones y los subtítulos de los cortos seleccionados. Los costes de las traducciones serán asumidos por KIMUAK.

Asimismo, KIMUAK asumirá los costes derivados de todas las copias requeridas durante el proceso de distribución, cualquiera que sea su formato.

DISPOSICIONES FINALES

La selección de un cortometraje para el programa KIMUAK implica su presencia EN EXCLUSIVIDAD en dicho catálogo, no pudiendo por tanto estar presente en ningún otro catálogo público de difusión de cortometrajes. Esta limitación no afecta a los catálogos de empresas privadas, siempre y cuando éstas no operen en el mismo ámbito que KIMUAK (difusión de cortometrajes en festivales y ámbitos similares).

Los responsables de los cortometrajes seleccionados deberán respetar el calendario establecido por KIMUAK para la aportación de materiales. KIMUAK se reserva el derecho a penalizar económicamente a quien incurra en retrasos que afecten a la elaboración del catálogo. En caso de incumplimiento grave, KIMUAK podrá determinar la exclusión de la obra.

Los cortometrajes seleccionados deberán ceder sus derechos de exhibición, sin exclusividad, a KIMUAK para su posible exhibición en programaciones con finalidad promocional, didáctica o cultural, sin ánimo de lucro.

El logotipo de KIMUAK encabezará cada uno de los cortometrajes seleccionados.

El catálogo resultante de esta convocatoria se presentará en septiembre de 2019 dentro del marco del Festival de San Sebastián, en una proyección privada.



Euskadiko Film Laburrak
Selección de Cortometrajes Vascos
Selection of Basque Short Films

Los responsables del cortometraje responderán de la veracidad de los datos facilitados, reservándose KIMUAK el derecho a excluir aquellos cortometrajes que hayan omitido información.

ACEPTACIÓN DE LAS BASES

La presentación de un corto a esta convocatoria supone la aceptación automática y completa de las presentes bases.

KIMUAK 2019 AUKERAKETAN SARTZEKO ESKAERA-ORRIA **| SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN EN LA SELECCIÓN KIMUAK 2019**

LANAREN DATUAK | DATOS DE LA OBRA

Izenburua Título	
Iraupena Duración (mm:ss)	

LANA AURKEZTEN DUEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOAREN DATUAK **| DATOS DE LA PERSONA FÍSICA O JURÍDICA QUE PRESENTA LA OBRA**

Izena Nombre	
Lanarekin duen harremana Relación con la obra	
Helbidea Dirección	
P.K. C.P.	
Herria Población	
Telefona Teléfono	
Mugikorra Móvil	
E-mail	
Web	



IZEN EMATEA | INSCRIPCIÓN

Kimuak 2019



Euskadiko Film Laburrak
Selección de Cortometrajes Vascos
Selection of Basque Short Films

EGILEAREN DATUAK | DATOS DEL AUTOR

Izen-abizenak Nombre y apellidos	
Biografia (gehienez 70 hitz) Biografía (máximo 70 palabras)	
Filmografia Filmografía	

LANAREN DATUAK | DATOS DE LA OBRA

Generoa Género	
Jatorrizko hizkuntza Idioma original	
Sinopsia (gehienez 50 hitz) Sinopsis (máximo 50 palabras)	
Aktoreak Intérpretes	



ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK | DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA PERSONA / ENTIDAD SOLICITANTE

A) Pertsona fisikoak | Personas físicas

NANaren fotokopia | Fotocopia del DNI

Egungo erroldatze-ziurtagiria edo adierazitako epeetan bizilekua EAEn eduki izanaren egiaztagiria

| Certificado de empadronamiento actual o acreditación de haber residido en la CAV en los plazos establecidos

B) Pertsona juridikoak | Personas jurídicas

Pertsona juridikoaren lege-ordezkararen NANaren fotokopia

| Fotocopia del DNI del representante legal de la persona jurídica

Zerga helbidea egiaztatzen duen Foru Ogasunaren datuak egiaztatzeko agiria (DEA)

| Documento acreditativo de datos (DAD) de la Hacienda Foral con el domicilio fiscal

Hainbat enpresen arteko koproduzioa bada, EAeko ekoizpen-etxeak gehiengoa duela ziurtatzen duen adierazpen sinatua | En caso de que se trate una coproducción entre varias empresas, declaración firmada de que la productora vasca es la socia mayoritaria

C) Bai pertsona fisikoak, bai juridikoak | Personas físicas y jurídicas

Zerga-betebeharrak egunean izatearen Foru Ogasunaren ziurtagiria

| Certificado de la Hacienda Foral de estar al corriente de pagos

Film laburraren fotograma bat JPG formatuan (300 ppp) | Un fotograma del cortometraje en JPG (300 ppp)

Film laburra zein jaialditara bidali den, zeintzuetan aukeratu duten eta zein sari jaso dituen adierazten duen zerrenda | Listado de los festivales a los que el corto ha sido presentado, indicando las selecciones y los premios obtenidos.

IZEN-EMATEAREN ONESPENA | CONFORMIDAD DE INSCRIPCIÓN

En _____ (e)n, 2019ko _____ ren _____ (e)(a)n.
a de _____ de 2019.